

ZIURTATZEN DUT:

Eskura ditudan datuak aztertutik, 2013ko programa mankomunatuaren datuak erantsitako fitxetan ageri direnak direla. Eta horrela ager dadin, bidezko ondorioetarako, honako hau luzatzen dut, alkatearen oniritziarekin.

(Herriaren izena) (Eguna)

(Ziurtatzailearen izen-deiturak)

Ontzat emana

Alkatea,

(Alkatearen izen-deiturak)

IV. ERANSKINA

Mankomunatuak 2013 - Jardueraren datuak

Fitxa zenbakia:

Taldea:

Lana:

Eguna: Ordua: Herria:

JARDUERA			
Antzerkia: <input type="checkbox"/>	Lirika: <input type="checkbox"/>		
Musika:	Klasikoa: <input type="checkbox"/>	Erakusketak	Arte Plastikoak: <input type="checkbox"/>
	Herrikoa: <input type="checkbox"/>		Ondarea: <input type="checkbox"/>
Dantza:	Klasikoa: <input type="checkbox"/>	Bestelakoak: <input type="checkbox"/>	
	Garaikidea: <input type="checkbox"/>	Zinea eta ikus-entzunezkoak:	Zinea: <input type="checkbox"/>
	Folklorikoa: <input type="checkbox"/>	Ikus-entzunezkoak: <input type="checkbox"/>	

KONPAINIA, TALDE EDO ARTISTAREN JATORRIA:	
Nafarroa: <input type="checkbox"/>	Espainia (Nafarroa salbu): <input type="checkbox"/>
Nazioartekoa: <input type="checkbox"/>	

PROFESIONALTASUN MAILA	Profesionala: <input type="checkbox"/>	Amateurra: <input type="checkbox"/>
------------------------	--	-------------------------------------

JARDUERAREN HIZKUNTZA	Gaztelania: <input type="checkbox"/>	Euskara: <input type="checkbox"/>
	Bestelakoak: <input type="checkbox"/>	Testurik gabekoa: <input type="checkbox"/>

ESPAZIO MOTA:	
EZ-KONBENTZIONALA (plaza, pilotalekua, eliza, bestelakoak) <input type="checkbox"/>	
KONBENTZIONALA	Eszenatokia: <input type="checkbox"/>
	Erakusketa aretoa: <input type="checkbox"/>

PUBLIKO MOTA:	Heldua: <input type="checkbox"/>	Familiarra: <input type="checkbox"/>
	IKUSLE KOP.:	

SARRERA MOTA:	Ordaintzekoa: <input type="checkbox"/>	Doakoa: <input type="checkbox"/>
	Prezioa:	

SARRERA KOP.	Saldutako sarrerak:
	Edukiera:

OHARRAK:

F1309583

1.7. BESTELAKOAK

1011/2013 EBAZPENEA, 2013ko uztailaren 2koa, Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak emana. Haren bidez "Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegia aldatzen duen Erabakia" argitaratzeko agintzen da. Gobernu Kontseiluak 2004ko urtarrilaren 20an onetsi zuen arautegi hura eta 2013ko uztailaren 2ko bileran aldatu zuen.

2003ko maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuak onetsitako Unibertsitateko Estatutuak 40. artikulua ematen dizkidan eskumenak erabiliz, Gobernu Kontseiluak 2004ko urtarrilaren 20an hartu zuen erabakia, 2013ko uztailaren 2an egindako bileran aldatutakoa, argitaratzeko agintzen

dut. Erabaki haren bidez "Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegia aldatzen duen Erabakia" onetsi zen, eta hona hemen hitzez hitz:

"ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO GOBERNU KONTSEILUAREN BARNE ERAENTZAKO ARAUTEGIA ALDATZEN DUENA

Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzen duen 4/2007 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarrian, unibertsitateei agindua ematen zaie estatutuak arau berrietara egokitzeko, gehienez ere hiru urteko epean.

Aipatu aldaketa horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak 2011ko martxoaren 21ean erabakia hartu zuen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuaren aldaketa onesten zuena. Estatutu horiek 2003ko maiatzaren 12ko 110/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren.

Ondorioz, araudi-aldaketa honek Nafarroako Unibertsitate Publikoaren barne-araudiari eragin behar dio, kasu honetan Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiari, organo horrek berak 2004ko urtarrilaren 20 erabakiaz onetsi zuenari, arautegia estatutuaren arauketa berriarekin bat etor dadin.

Horregatik guztiagatik, honako hau da Gobernu Kontseiluak 2013ko uztailaren 2ko bileran, kideek alde zuzenik eztabaida egin ondoren, hartu duen

ERABAKIA

Lehen a. –Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiaren aldaketa onestea, 1. eranskinean ezartzen den moduan.

Bigarrena. –Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiaren testu birbildua onestea, 2. eranskinean ezartzen den moduan, onetsitako aldaketak sartu eta gero."

Iruñean, 2013ko uztailaren 2an. –Julio Lafuente López, Errektorea

1. ERANSKINA

Artikulu bakarra. –Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiaren aldaketa.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegia, Gobernu Kontseiluak 2004ko urtarrilaren 20an hartutako erabakiaren bidez onetsitakoa, aldatuko da ondoren esaten den moduan:

Bat.–2. artikulua honela geratuko da:

"Honako hauek osatuko dute Gobernu Kontseilua:

- Errektoreak, idazkari nagusiak eta kudeatzaileak.
- Errektoreordeak.
- Kaustroak, bere kideen artetik hautatutako hamabi ordezkari, kaustroaren arloen osaera islatuko dutenak, banaketa honen arabera:
 - Lotura iraunkorra duten irakasle doktoreen sei ordezkari.
 - Aurreko kategorian sartzen ez diren irakasle eta ikertzaileen bi ordezkari.
 - Ikasleen bi ordezkari.
 - Administrazio eta zerbitzuetako langileen bi ordezkari.
 - Fakultateko dekanoen, eskolako zuzendarien eta, halakorik bada, Ikerketarako Unibertsitate Institutuko zuzendarien bi ordezkari, berek beren artetik hautatuak.
 - Saileko zuzendarien lau ordezkari, berek beren artetik hautatuak.
 - Gizarte Kontseiluaren bi kide, unibertsitateko komunitatekoak ez direnak, Gizarte Kontseiluak hautatuak."

Bi.–6. artikuluko 1 atala honela geratuko da, ondoko letra hauetan:

"a) Unibertsitatearen estrategia ildoak ezartzea eta Gizarte Kontseiluarekin batera Estrategia Plana adostea. Bi organoek izendatutako batzorde delegatuek batera erabakiko dute nola parte-hartuko duen Gizarte Kontseiluak Plan Estrategikoaren proiektua prestatzeko lanetan."

"c) Doktoretza tesiak egiteko prozesuaren jarraibide orokorrak eta araudia ezartzea, Doktoretza Eskolaren osaera zehaztea eta bere barne eraentzako arautegia onestea, bai eta doktoretza-programak ere."

"g) Ikasketa ofizialen kredituak aitortzeko eta transferitzeko baldintzak onestea, bai eta ikasketak eta titulu berekiak ezartzea ere, arau indardunetan xedatutakoaren arabera."

"i) Unibertsitatearen jarraibidea onestea Kalitatearen arloan, eta hobetzeko jardueren jarraipena egitea; halaber, ikasketetarako kalitate eskakizunak betetzen direla begiratzea."

"n) Estatutuak 5.2 artikuluan aipatutako zentroak edo egiturak sortzea."

6. artikuluko 2 atala honela geratuko da, ondoko letra hauetan:
"a) Gizarte Kontseiluari proposatzea onets dezan Plan Estrategikoa-ren finantzaketa hainbat urtetarako programazio proiektu baten bidez."

6. artikuluko 4 atala honela geratuko da, ondoko letra hauetan:
"a) Bere barne-eraentzako arautegia onestea, Ikastegi, Sail eta Ikerketarako Unibertsitate Institutuentzako irizpide orokorrak erabakitzea; Aholkularitza Batzordearen, Ikastegien, Sailen eta Ikerketarako Unibertsitate Institutuen barne-eraentzako arautegiak onestea, bai eta edozein arautegi beregain ere."

"c) Doktoretza Batzordearen osaera zehazten duen araudia onestea, Estatutuetak 64.1 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe."

6. artikuluko 5 atala honela geratuko da, ondoko letra hauetan:
a) "Edukirik gabe."
c) "Kalitate Batzordearen osaera zehaztea Unibertsitatearen Estatutuek ezarritako moduan."
d) "Edukirik gabe."

g) "Ezagutza-arloetako taldeak zehaztea, Doktoretza eta Ikerketako Batzordeetako ordezkariak hautatzeko, baita talde bakoitzaren ordezkari-kopurua ere." Halaber, Gobernu Kontseiluak Ikerketa Batzordeko bost kide izendatuko ditu, errektoreak proposatuta, Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreen artean."

p) "Lege indardunek egozten dizkioten gainerako funtzioak betetzea."

Hiru.-8. artikulua honela geratuko da:

"Edukirik gabe."

Lau.-9.1. artikulua honela geratuko da:

"Gobernu Kontseiluak, bere kideen artean, irakasle bat, ikasle bat eta administrazio eta zerbitzuetako langile bat hautatuko ditu Gizarte Kontseiluan ordezkari izan daitezkeen. Gobernu Kontseiluko kide guztiak izango dira hautesle, eta egoera horietan dauden guztiak hautagai, Gizarte Kontseiluko berezko kide diren Gobernu Kontseilukoak eta errektoreordeak izan ezik."

Bost.-10. artikulua honela geratuko da:

"Edukirik gabe."

Sei.-15.1. artikulua honela geratuko da:

"1. Edozein arrazoi dela-eta errektoreak ez badu bilera zuzentzen, berriaz delegaturiko errektoreordeak zuzenduko du, edo halakorik ezean, Unibertsitateak antzinatean handiena duen errektoreordeak, betiere Unibertsitateko Katedraduna bada."

Zazpi.-Xedapen gehigarria honela geratuko da:

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Hauteskunde Arautegiko 9.3 artikulua ondozondotarako, bakar-bakarrik, errektoreak izendatzen duen errektoreordeari egokituko zaio aparteko bilerak deitu eta zuzentzeko ardua, edo, halakorik ez badago, antzinatean handiena duen unibertsitateko irakaskidegoetako errektoreordeari, hurrenez hurren.

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO GOBERNU
KONTSEILUAREN BARNE ERAENTZAKO ARAUTEGIAREN TESTU
BATEGINA (GOBERNU KONTSEILUAK 2004KO URTARRILAREN
20AN HARTUTAKO ERABAKIA, 2013KO UZTAILAREN 2KO ERABAKI
BATEN BIDEZ ALDATUA)

LEHEN TITULUA

Gobernu Kontseilua eta bere osaera

1. artikulua. Izaera.
2. artikulua. Osaera.
3. artikulua. Bilerak.
4. artikulua. Berritzea.
5. artikulua. Kargu-uztea.

BIGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren eskumenak

6. artikulua. Eskumenak.
7. artikulua. Eskumenen delegazioa.
8. artikulua. "Edukirik gabe".
9. artikulua. Gobernu Kontseiluaren ordezkariak Gizarte Kontseiluan.
10. artikulua. "Edukirik gabe".

HIRUGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren antolamendua eta jarduna

11. artikulua.

I. KAPITULUA

Gobernu Kontseiluaren Osoko Bilkura

12. artikulua. Kontseiluburua.
13. artikulua. Idazkaria.
14. artikulua. Bileren deialdia.
15. artikulua. Bileren garapena.
16. artikulua. Erabakiak hartzea.
17. artikulua. Aktak.

II. KAPITULUA

Gobernu Kontseiluaren Batzordeak

18. artikulua.
19. artikulua. Batzorde Iraunkorra.
20. artikulua. Irakaskuntza Batzordea.
21. artikulua. Ekonomia Batzordea.

LAUGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren erabakien aurkako errekurtsioak

22. artikulua.

BOSGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiaren eraberritzea

23. artikulua.
- Xedapen Gehigarria.
- Xedapen Iragakorra.
- Xedapen Indargabetzailea.
- Azken Xedapena.

LEHENBIZIKO TITULUA

Gobernu Kontseilua eta bere osaera

1. artikulua. Izaera.
Gobernu Batzordea Nafarroako Unibertsitate Publikoko ohiko gobernu erakundea da. Unibertsitateari buruzko lege orokorrek, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuek eta Arautegi honek arautzen dituzte bere osaera, eskumenak eta funtzionamendua.
2. artikulua. Osaera.
Honako hauek osatuko dute Gobernu Kontseilua:
a) Errektoreak, idazkari nagusiak eta kudeatzaileak.
b) Errektoreordeak.
c) Klaustroak, bere kideen artean hautatutako hamabi ordezkari, klaustroaren arloen osaera islatuko dutenak, banaketa honen arabera:
1.-Lotura iraunkorra duten irakasle doktoreen sei ordezkari.
2.-Aurreko kategorian sartzen ez diren irakasle eta ikertzaileen bi ordezkari.
3.-Ikasleen bi ordezkari.
4.-Administrazio eta Zerbitzuetako langileen bi ordezkari.
d) Fakultateko dekanoen, Eskolako zuzendarien, eta baldin badaude, Unibertsitateko Ikerketa Sailerako zuzendarien lau ordezkari, haiek hautatuak beren artean.
e) Saileko zuzendarien lau ordezkari, berek beren artean hautatuak.
f) Gizarte Kontseiluaren bi kide, unibertsitateko komunitatekoak ez direnak, Gizarte Kontseiluak hautatuak.
3. artikulua. Bilerak.
1. Gobernu Kontseiluaren bilerak Arautegi honetako Hirugarren Tituluak ezartzen duenaren arabera egingo dira.
2. Errektoreak, bere ekimenez edo Gobernu Kontseiluko beste hainbat kidek hala eskatuta, eguneko aztergaiak direla-eta interesgarriak izan daitezkeen pertsonak gonbidatzen ahalko ditu, bileretan parte har dezaten. Bilerako aktan gonbidatu bezala, hau da, hizpidearekin baina botorik gabe, egon direla jasoko da.
4. artikulua. Berritzea.
Gobernu Kontseilua lau urtez behin berrituko da, ikasleen ordezkarien kasuan izan ezik, horiek bi urtez behin berrituko baitira.
5. artikulua. Kargu-uztea.
1. Honako arrazoi hauek direnean Gobernu Kontseiluko kideek kargua utziko dute:
a) Judizialki aitortutako ezgaitasunagatik.

- b) Agintaldia amaitzeagatik.
 - c) Berariaz uko egiteagatik.
 - d) Hautatua izan zen arlokoa izateari uzteagatik.
 - e) Zein erakundetako den ordezkari, erakunde horren kide izateari uzteagatik, legeak ezarritako kasuetan izan ezik.
 - f) Zein kargutarako izendatu edo hautatu zuten bakoitza, kargu hori uztea.
 - g) Heriotzagatik.
 - h) Erretiroa hartzeagatik.
 - i) Hamabi hilabeteko aldi batean elkarren ondorengo lau bileratarako edo elkarren ondorengoak ez diren sei bileratarako ez joatea, arrazoia justifikatu gabe, berdin da ohikoak edo ohiz kanpokoak izatea.
 - j) Arau aplikagarrietan ezarritako beste edozein arrazoi.
2. Arloetako ordezkarien artean betetzeko postu titulos badago, ordezkariak egiteko edo berriz hautatzeko Unibertsitatearen Estatutuek eta Hauteskunde Arautegiek ezartzen dutenari jarraituko zaio.

BIGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren eskumenak

6. artikulua. Eskumenak.

Unibertsitatei buruzko Lege Organikoak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuek ezartzen dutenaren arabera, Gobernu Kontseiluak dauka honako eginkizun hauen titulartasuna eta hari dagokio horiek betetzea.

1. Plangintza eta erakunde-garapenari buruzko eskumenak:

a) Unibertsitatearen estrategia ildoak ezartzea eta Gizarte Kontseiluarekin batera Estrategia Plana adostea. Bi organoek izendatutako batzorde delegatuek batera erabakiko dute nola parte-hartuko duen Gizarte Kontseiluak Plan Estrategikoa egiteko lanetan.

b) Jarraibide orokorrak eta horiek aplikatzeko prozedurak onestea, ikasketak, ikerketa, eta giza eta ekonomia baliabideak antolatzeako arloetan.

c) Doktoretza tesiak egiteko prozesuaren jarraibide orokorrak eta araudia ezartzea, Doktoretza Eskolaren osaera zehaztea eta bere barne eraentzako arautegia onestea, bai eta doktoretza-programak ere.

d) Ikerketa politika eta teknologia bestetarako ildoak, ikerketa sustatzeko programa berekiak eta ikerketa-aurrekontuaren banaketa onestea.

e) Unibertsitateko irakaskuntza programazioa onestea urtero.

f) Ikasketa planak onestea, lege ezarritako prozedurari jarraikiz, eta Gobernu Kontseiluak berak ikasketa planetarako onetsitako jarraibideei horiek doitzeko ekimenak hartzea.

g) Ikasketa ofizialen kredituak aitortzeko eta transferitzeko baldintzak onestea, bai eta ikasketak eta titulu berekiak ezartzea ere, arau indardunetan xedatutakoaren arabera.

h) Titulu berekiak ateratzeko eta etengabeko prestakuntzarako irakaskuntzak arautzea.

i) Unibertsitatearen jarraibideak onestea Kalitatearen arloan, eta hobetzeko jardueren jarraipena egitea; halaber, ikasketetarako kalitate eskakizunak betetzen direla begiratzea.

j) Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen jardura ebaluatzeko plangintza onestea, eta, dauzkan eskumenen barnean, ebaluazio irizpideak ezartzea.

k) Lanpostuen eskaintza erabakitzea, bai eta ikasleak onartzeko prozedurak ere, arau indardunetan xedatutakoaren arabera.

l) Euskara irakaskuntzan nola erabiliko den planifikatzea.

m) Gizarte Kontseiluari, eta, hala badagokio, Foru Komunitateari Unibertsitatei buruzko Lege Organikoaren 8.2, 10.3 eta 11.1 artikuluetan aurreikusitako gaiari buruzko proposamenak bidaltzea, baita arau indardunetan aurreikusten den beste edozein ere.

n) Estatutuetako 5.2 artikuluan aipatutako zentroak edo egiturak sortzea.

o) Sailak sortu, aldatu eta kentzeari buruzko ekimena eta onspena.

2. Ekonomia arloko eskumenak:

a) Gizarte Kontseiluari proposatzea onetsi dezan Plan Estrategikoaren finantzaketa hainbat urtetarako programazio proiektu baten bidez.

b) Gizarte Kontseiluari urteko aurrekontu-proiektua prestatzea eta proposatzea, onetsi dezan.

c) Errektoreari kreditu eragiketarako egin dezan baimena ematea.

d) Gizarte Kontseiluari Unibertsitatearen ondarearen aldaketak proposatzea, Estatutuetako 140.1 artikulua ezartzen duenaren arabera.

e) Unibertsitatearen ondarearen besterentzako ezagutzea, Estatutuetako 140.2 artikulua ezartzen duenaren arabera.

f) Gobernu Kontseiluari pertsona juridikoak sortzeko proposatzea.

3. Irakaskuntza eta lan arloko eskumenak:

a) Irakasleen eta administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostu zerrendarako proposamena onestea.

b) Irakasle eta ikertzaileen Lanpostuen Zerrenda onestea.

c) Unibertsitateko irakaskidegoetako lanpostuetara sartzeko lehiaketetako kideak eta Kontratazio Batzordeetako kideak izendatzea, Estatutuek ezartzen dutenaren arabera.

d) Kontratupeko irakasleen eta ikertzaileen lanpostuetarako lehiaketetako Erreklamazio Batzordeko kideak aukeratzea.

e) Dauzkan eskumenen barnean, irizpideak eta prozedurak ezartzea, irakasleak eta administrazio eta zerbitzuetako langileak hautatu eta kontratatzeako eta horien lanpostuen sustapena egiteko.

f) Irakaskidegoetan hornitu behar diren lanpostuak zehaztea, betetzeko, eta horretarako irizpide egokiak ezartzea.

g) Irakaskidegoetako lanpostuetarako lehiaketen deialdi, egiteko arau eta balioesteko irizpide orokorre buruzko arauak ematea.

h) Kontratupeko irakasleen eta ikertzaileen lanpostuetarako lehiaketen deialdi, egiteko arau eta balioesteko irizpide orokorre buruzko arauak ematea.

i) Administrazio eta zerbitzuetako langileen alorrean dauden bete gabeko lanpostuak hornitzeko garaian, sustapenerako geratuko den ehunekoa zehaztea.

j) Euskara ezinbesteko baldintza ez den lehiaketetan, erabakitzea zenbat balioko duen, lege indardunak ezartzen dutenaren arabera.

k) Kontratupeko irakasleek gehienez jasoko duten ordainketa finkatzea, Foru Komunitatearen araurik ez denean.

l) Bateriaezintasun ekonomiko eta funtzionalen araubidea irakaskuntza-betekizunak betetzeko orduan, ezartzea.

m) Gobernu organoetan aritzeagatik behar den irakaskuntza- edo administrazio- eta zerbitzu-beharretako murrizketa-araubidea erabakitzea.

n) Unibertsitateko komunitateko kideen lan baldintzak begiratzea.

o) Irakaskuntza- eta lan-egutegiak onestea.

4. Araugintza arloko eskumenak:

a) Bere barne-eraentzako arautegia onestea, Ikastegi, Sail eta Ikerketarako Unibertsitate Institutuentzako irizpide orokorrak erabakitzea; Aholkularitza Batzordearen, Ikastegien, Sainen eta Ikerketarako Unibertsitate Institutuen barne-eraentzako arautegiak onestea, bai eta edozein arautegi beregain ere.

b) Nafarroako Unibertsitate Publikoko hauteskunde prozesuak zuzenduko dituen Arautegia onestea.

c) Doktoretza Batzordearen osaera zehazten duen araudia onestea, Estatutuetako 64.1 artikuluan ezarritakoa galarazi gabe.

d) Ordezkariak eta ordezkariordeak hautatzeko arautegia onestea.

e) Ikasleen Batzordeko Arautegia onestea.

f) Bekadunen Estatutua onestea.

g) Saileko Kontseiluaren osaera eta eskumenak arautzen dituzten arauak Ikerketarako Unibertsitate Institutuen Kontseiluari egokitzea.

h) Ofizialak ez diren titulazietako ikasleei aplikatu beharreko parte hartze eta ordezkariarantz araudia onestea.

i) Ikasketa arautegia onestea.

j) Irakasleentzako ikasketen lizentzia-arautegia onestea.

k) Urte sabatikoa ematea arautuko duen prozedura eta urte sabatikoa edukitzea eskaeren nolako onestea.

l) Ohorezko laguntzaileen araudia arautuko duen arautegia onestea.

m) Irakasleak kontratatzeako arautegia prestatzea eta onestea.

n) Lanpostuak premiaz eta aldi baterako betetzea arautuko duen arautegia onestea.

o) Kontratuak egiteko prozeduraren eta irizpide orokorren arautegia onestea, Estatutuetako 138. artikulua ezartzen duenaren arabera.

p) Ikerketa-lanaren irakasleek irakaslanaz salbuetsita egoteko.

q) Erakunde irudiaren ezaugarriak, marka grafikoak eta aplikazioak sortu, aldatu eta erabiltzeko araubide juridikoa zein izango den zehaztea.

r) Estatutuen eraberritzea proposatzea.

s) Lege indardunetan izan diren aldaketak sartzeko argibideak ematea, Estatutuak eraberritzen ez diren bitartean.

t) Estatutuak aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak hartzea.

5. Beste hainbat eskumen:

a) Edukirik gabe

b) Gobernu Kontseiluaren ordezkariak hautatzea Gizarte Kontseiluan.

c) Kalitate Batzordearen osaera zehaztea Unibertsitatearen Estatutuek ezarritako moduan.

- d) Edukirik gabe
- e) Behar den tokian erakundeen ordezkari izango direnak izendatzea.
- f) Dekanorde/ikastegiko zuzendariordeen kopurua ezartzea, baita zuzendaritza taldeari laguntza emango dioten administrazio-baliabideak ere.
- g) Ezagutza-arloetako taldeak zehaztea, Doktoretza eta Ikerketako Batzordeetako ordezkariak hautatzeko, baita talde bakoitzaren ordezkari-kopurua ere. Halaber, Gobernu Kontseiluak Ikerketa Batzordeko bost kide izendatuko ditu, errektoreak proposatuta, Unibertsitatearekin lotura iraunkorra duten irakasle doktoreen artean.
- h) Ohorezko aipamenak ematea eta honoris causa doktoreen izendapena onestea.
- i) Irakaskuntza jarduerak kontrolatzeko mekanismoak erabakitzea.
- j) Irakaslana bermatzeko neurriak ezartzea, sailek ardura hori ezin dutenean bete.
- k) Ikasle-egoitza Nagusien funtzionamendua eta bertako ikasleen sarrera-arabidea onestea.
- l) Entitate edo erakunde publiko zein pribatuaren mende dauden Ikasle-egoitza Nagusiak Unibertsitateari atxikitzeak hitzarmenak onestea.
- m) Beste unibertsitateekin eta beste erakunde eta zentroekin, publikoak edo pribatuak, egiten diren lankidetzak eta truke-hitzarmenak berrestea eta salatzea. Halaber, unibertsitateko zerbitzu-emankizunetako hitzarmenak berrestea, Estatutuak 131. artikulua ezartzen duenaren arabera.
- n) Hizkuntza Plangintzarako Batzordea sortzea.
- o) Beharrezkoak jotzen dituen batzorde delegatuak sortzea, eta haiei eskumenak eta funtzionamendu-arauak egozteak.
- p) Lege indardunek egotzen dizkioten gainerako eginkizunak betetzea.
7. artikulua. Eskumenen delegazioa.
- Eskumen hauetako edozein errektoreari delegatzeko aukera dago, Kontseiluko kideen 2/3eko gehiengoak hala erabakita, eskumenak delegatzeak dituen lege mugak galarazi gabe.
8. artikulua. Edukirik gabe.
9. artikulua. Gobernu Kontseiluaren ordezkariak Gizarte Kontseiluan.
1. Gobernu Kontseiluak, beren kideen artean, irakasle bat, ikasle bat eta administrazio eta zerbitzuak langile bat hautatuko ditu Gizarte Kontseiluan ordezkari izan daitezkeen. Gobernu Kontseiluko kide guztiak izango dira hautesle, eta egoera horietan dauden guztiak hautagai, Gizarte Kontseiluko berezko kide diren Gobernu Kontseilukoak eta errektoreordeak izan ezik.
2. Hauteskunde sistema gehiengoaren bidezkoa izango da. Hautesleek gehienez ere hautagai bati eman ahaliko diote botoa eta boto gehien duena izango da hautatua. Bozketak isilpekoa izango da.
3. Arloren bateko ordezkariak Gobernu Kontseiluan kide bakarrekoa baldin bada, kide bakarra izango da arloaren ordezkaria Gizarte Kontseiluan, hautaketarik egin behar izan gabe.
4. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuak ezartzen dutenak zuzentzen du Gobernu Kontseiluko kideek Gizarte Kontseiluan dituzten ordezkarien hutsuneak betetzeko araudia.
10. artikulua. Edukirik gabe.

HIRUGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren antolamendua eta jarduna

11. artikulua.

Gobernu Kontseiluak Osoko Bilkuran eta Batzordeetan jardungo du.

I. KAPITULUA

Gobernu Kontseiluaren Osoko Bilkura

12. artikulua. Kontseiluburua.

1. Errektorea da Gobernu Kontseiluaren burua. Hala denez, aipatu organoaren ordezkariak bete, bere jarduerak zuzendu eta koordinatu, bilerak zuzendu eta erabakiak betearazten ditu.
2. Gobernu Kontseiluaren buruari dagokio:
- a) Bileren deialdia egitea eta eguneko aztergaiak zehaztea.
- b) Bilerari hasiera eta bukaera ematea, baita bilera eten eta berriz hasteko agintzea ere.
- c) Eztatuiden garapena zuzendu, baita eztabaidak eten edo bukatutzat ematea ere.
- d) Hitza ematea eta ukatzea eskatzen duenari, baita hitza kentzea ere.
- e) Eztatuidak edo erabakiak hartzea oztokatzen duenari kargu hartzea, horretarako, beharrezkoa bada, neurri egokiak hartuz.

- f) Berdinketak desegitea kalitatezko botoaren bidez.
- g) Gobernu Kontseiluaren erabakien aktak eta egiaztagirak ikus-ostean.
- h) Gobernu Kontseiluko buru izateari dagozkion gainerako eginkizun guztiak egitea.
13. artikulua. Idazkaria.
1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko idazkari nagusia da Gobernu Kontseiluko idazkaria, baita, arautegiek besterik esaten ez duten bitartean, hura kide duten batzorde guztietakoa ere.
2. Idazkariorde nagusirik ez badago, idazkariak kargua utzi behar duenean, beste bat izendatu delako, lege-arrazoiengatik edo berak hala eskatuta, bere eginkizunetan segituko du, jardunean, bere ondorengoa karguaz jabetzen den arte.
3. Gobernu Kontseiluko idazkariak eginkizun hauek ditu:
- a) Organoaren bileren deialdia egitea, buruak hala aginduta, baita kideei deiak iristaraztea ere.
- b) Kideek organoarekin dituzten komunikazio-ekintzak jasotzea, eta bera, jakinarazpenak, datu-eskaerak, zuzenketak edo ezagutu behar den beste edozein idazki.
- c) Gobernu Kontseiluaren bileretako fede-emaile eginkizuna betetzea.
- d) Aferen izapidetza prestatzea, bileretako aktak idaztea eta baimentzea.
- e) Akta Liburua egin eta zaintzea.
- f) Gobernu Kontseiluak onetsitako aktak eta erabakien egiaztagirak luzatzea, Errektorearen oniritziarekin.
- g) Gobernu Kontseiluak hartutako erabakien argitaratzea eta jakinaraztea.
- h) Gobernu Kontseiluari atxiki zaizkion barne zerbitzuetako giza eta gauzako baliabideak antolatzea eta zuzentzea, horren kariaz, dena behar bezala funtziona dezan, Errektoreari beharrezkoa dena proposatuz.
- i) Gobernu Kontseiluaren agiriaren sarrera eta irteera kontrolatzea eta horiek banatzea kontseilukideen artean.
- j) Idazkariaren eginkizunari dagozkion beste eginkizun guztiak, edo Errektoreak zein Gobernu Kontseiluak berak agindutakoak.
14. artikulua. Bileren aktak
1. Gobernu Kontseilua honelakoetan bilduko da:
- a) Ohiko bileran, hiru hilabete behin gutxienez, irakaskuntza-aldiaren barruan.
- b) Ohiz kanpoko bileran, errektoreak bere kabuz beharrezkoa ikusten duenean, edo bere kideen ehuneko 30ek halaxe eskatzen ditenean. Eskaera idatziz egingo da Errektoreari, ukitu behar diren aztergaiak zeintzuk diren adieraziz. Kasu honetan, errektoreak eskaera egiten den egunaren ondoko 10 egun baliodunen epean egingo du deialdia, eta bilera errektoreak eskaera jaso zuen egunaren ondoko 20 egun baliodunen epean egingo da.
2. Kideei deialdiaren berri jakinarazi behar zaie modu egokian bilera non eta noiz izango den esanez, baita eguneko aztergaien zerrenda emanaz ere, bilera egin baino hiru astez lehenago, gutxienez. Ez da horrela egingo, ordea, ohiz kanpoko bileren kasuan, arrazoi pisuzkorik bada premiaz deitzen ahaliko baitira, bilera egin baino 48 ordu lehenago.
- Gobernu Kontseiluko kideek punturen bat sartzen ahaliko dute bileraren eguneko aztergaietan, gutxienez kideetako ehuneko 30ek hala eskatuz gero Errektoreari. Eskaera idatziz egingo da Errektoreari, ukitu behar diren aztergaiak zeintzuk diren adieraziz. Eskaera hori ohiko bilerarako deialdia baino lehen egin beharko da.
3. Gobernu Kontseilua behar bezala eratuta geratuko da lehen deialdian, baldin eta Burua eta Idazkaria bertan badaude, edo, hala badagokio, beren eginkizunak betetzen dituztenak, eta gainontzeko kide guztien erdiak, gutxienez. Quorumik ez badago, bigarren deialdian bilera balioduna izango da baldin eta bertan badaude burua eta idazkaria edo, hala badagokio, beren eginkizunak betetzen dituztenak, eta halaber gainontzeko kideen heren bat. Lehen eta bigarren deialdien artean ordu erdi bateko tartea egongo da, gutxienez.
4. Alabaina, Gobernu Kontseilua behar bezala eratuta geratuko da, deialdiaren baldintzak bete ez direnean ere, baldin eta bere kide guztiak bildurik badaude eta aho batez horrela erabakitzen dutenean.
5. Gobernu Kontseiluko bileretako eguneko aztergaietan sartzen diren gaiak buruzko agiriak kideen eskura jarri behar dira, dagokion bileraren deialdiarekin batera.
6. Ezin izango da erabaki eguneko aztergaietan agertzen ez den gairik, ez bada Gobernu Kontseiluko kide guztiak bertaraturik daudela, eta gehiengoaren aldeko botoen bidez gaiaren premia aitortzen dela.
7. Eguneko aztergaietan, azken puntu bezala, eskari-galderen atala agertu beharko da, eta bertan ezin izango da baliozko erabakirik hartu, gaiari buruz eztabaidatutakoa galarazi gabe.

15. artikulua. Bileren garapena.

1. Edozein arrazoi dela-eta errektorea ez bada bilera-buru, berariaz delegaturiko errektoreordea izango da burua, edo halakorik ezean, Unibertsitateak antzinasun handiena duen errektoreordea, betiere Unibertsitateko katedraduna bada.

2. Idazkaria ez badago bertan, bilera-buruak izendatuko du Gobernu Kontseiluko kide bat bilerako idazkari-lanak egin ditzan.

3. Bilera-buruak behar bezala gara dadila ziurtatu behar du, eta arrazoi justifikatuta badago bertan behera utz dezake, esanez non, zer egunetan eta zer orduetan jarraituko den. Bilerako buruak eztabaidaren eduneta ona eta bozketak zuzenduko ditu, baita hitz egiteko txanda eman eta kendu ere. Horretarako, aztergai bakoitzari buruz eztabaidatzeko gehienez zenbat denbora erabiliko den eta parte hartze kopurua eta haien iraupena ezarri ahaliko ditu.

Ezin izango zaio inori bere parte hartzea moztu bere denbora bukatu ez den artean, bera nahiz Kontseilua edo bertako kideren bat ohartarazteko ez bada.

4. Eztabaidak eguneko aztergaien zerrendaren hurrenkeran egingo dira. Alabaina, zilegi da eguneko aztergaien zerrenda aldatzea, organo kolegiatuaren gehiengoaren erabakiaz, bilerako buruak hala proposaturik.

5. Gobernu Kontseiluko kideek edozein unetan plazaratuko dituzte erazko auziak, eta horretarako hitz egiteko baimena eskatu behar diote bilerako buruari, zeinak, inorekin eztabaidatu gabe, ebatziko baititu.

6. Gobernu Batzordeko kideek, bileraren edozein unetan eskatuko diote bilerako buruari aktan jasotzeko berek edo beste zenbait kidek, eztabaida bitartean, esandako hitzak.

7. Eztabaidetan kontseilukideren bati buruz nahiz bere jokabideari buruz hala nolako iritziak edo zehazkabetasunak egiten badira, kontseilukide horrek hitz egiteko eskubidea, berehalakoa, izango du, soil-soilik egindako aipamenei erantzuteko eta eztabaidatzen ari den gaiari sakondu gabe.

16. artikulua. Erabakiak hartzea.

1. Gobernu Kontseiluaren erabakiak bertan dauden eta botoa ematen duten gehiengo soilaren bidez hartuko dira, eta horretarako abstentzioak ez dira aintzat hartuko.

Aurreko arauak ez du balio izango arautegiak berariaz bestelako gehiengoren bat eskatzen duen erabakietan.

2. Bozketan berdinketa gertatzen bada, kontseiluburuak boto ebazlea erabiltzeko aukera izango du. Eskubide hori erabiltzen ez badu, bigarren bozketa bat egitea agintzeko aukera izango du. Bigarren honetan ere berdinketa gertatzen bada, boto ebazlea erabiltzeko aukera izango du.

3. Bilerako buruak kontsulta egin eta gero kontseilukide bakar batek ere aurkakoa adierazten ez badu, erabakia baiezkotzat onartuko da. Erabakia hartzeko garaian adostasunik ez dagoenean, bozketak egingo da, zeina, bilerako buruak aukeratzaren duenaren arabera, ondorengo prozedura hauekaren bati jarraituz egingo baita:

a) Ohiko bozketa, eskua altxatuz. Bilerako buruak eskua altxatzeko aginduko die, hurrenez hurren, baiezkotzea botoa ematen dutenei, ezezko botoa ematen dutenei eta abstenitzen direnei, eta boto-zenbaketa egingo du, gero dagokion aktan jasotzeko.

Izenaren bidezko bozketa, zeinean Kontseiluburuak Gobernu Kontseiluko kide bakoitzaren izena esango baitu, eta hauek erantzun egingo baitute (bai, ez edo abstentzioa), besterik ez.

c) Isilpeko bozketa, Gobernu Kontseiluko edozein kidek eskatzen duenean egin behar dena, eta betiere pertsonak ukitzen baditu. Kasu honetan, kontseiluburuak egingo du boto-zenbaketa ahoz, boto-txartelak hautestontzitik aterako ditu, eta organo kolegiatuko edozein kidek aztertu ahal izango ditu.

Boto-zenbaketa amaitutakoan Gobernu Kontseiluko Buruak aldarrikatuko du bozketaren emaitza.

4. Gobernu Kontseiluko kide bakoitzak boto bat edukiko du. Ez da boto-ordezkaritzarik onartuko, ezta postaren bidezkoa denean ere.

5. Behin bozketa hasten denean, kontseilukideak ezin izango dira bileratik irten edo bilerara sartu bozketa amaitu arte.

17. artikulua. Aktak.

1. Idazkariak bileraren akta idatziko du, eta hauek jasoko ditu: bertaratuen izena, joan ez diren baina ez joatea justifikatu dutenena, bilerako aztergaien zerrenda, bilera egin deneko tokiaren eta denboraren inguruabarrak, eztabaidetako punturik garrantzizkoenak, jasota gertatzeko eskatu diren hitzak, bozketen emaitzak eta hartutako erabakien edukia.

2. Organo kolegiatuak onetsi behar ditu aktak, Kontseiluaren bilera berean edo hurrengo bileran, eta idazkariak izenpetuko ditu, errektorearen oniritziarekin. Akta onesten denean zilegi da zuzenketak edo zehaztapenak proposatzea eta egitea, bileran gertatutakoa hobeki islatzeko.

3. Idazkariak gordailutako ditu Aktak eta bere edukari buruzko informazioa eskatzen duen Gobernu Kontseiluaren edozein kideren eskura egongo dira.

4. Organo kolegiatuko kideek hala eskatuta, aktan agertuko dira hartutako erabakiaren kontrako botoa, abstentzioa eta bera justifikatzen duten arrazoiak, nahiz emandako aldeko botoaren azalpena ere. Era berean, edozein kidek dauka bere parte hartze edo proposamenaren transkripzio osoa eskatzeko eskubidea, betiere orduantxe edo buruak finkatzen duen epean parte hartzearen testu zehatza ematen badu, eta aktan horrela adieraziko da edo bertan kopia bat erantsiko da.

5. Gehiengoak harturiko erabakiarekin bat ez datozen kideek idatziz eman dezakete boto partikularra berrogeita zortzi orduko epean eta onetsitako erabakiari erantsiko zaio.

6. Kontseiluko kideek kontrako botoa ematen badute edo ez badute botorik ematen, ez dute erabakietatik ondoriozta litekeen erantzukizunik izango.

7. Idazkari nagusiak jakinaraziko ditu Gobernu Kontseiluaren erabakiak, lege indardunetan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. Unibertsitate komunitateko edozein kidek eta lege aplikagarrien arabera interesdun denak eskubidea du idazkariak Gobernu Kontseiluaren erabakien egiaztagiria eman diezaion, betiere idatziz frogatzen baldin badu bere interesa zilegi dela.

II. KAPITULUA

Gobernu Kontseiluaren batzordeak

18. artikulua.

1. Honako batzorde hauek eratu dira, gutxienez: Batzorde Iraunkorra, Irakaskuntza Batzordea eta Batzorde Ekonomikoa. Gobernu Kontseiluaren Osoko Bilkurak erabaki behar dituzte batzorde horietan egon litezkeen aldaketak.

2. Batzorde Iraunkorraren eginkizuna honako hau da: bere eskumenen barruko gaien azterketa eta erabakien eztabaida, prestaketa eta proposamena, eta berariaz delegatzen zaizkion eskumen betearazleak ere beteko ditu.

3. Irakaskuntza Batzordearen eta Ekonomia Batzordearen eginkizunak honako hauek dira: beren eskumenen barruko gaien azterketa eta erabakien eztabaida, prestaketa eta proposamena. Beren proposamenak, lotesleak ez direnak, Gobernu Kontseiluaren Osoko Bilkurak onetsiko ditu hala badagokio.

4. Gainera, Gobernu Batzordeko Osoko Bilkurak, errektoreak proposaturik, gai zehatzak eztabaidatzeko beste hainbat batzorde sortu, aldatu eta desegin, eta beren arautegia, osatura, ematen zaizkion eginkizunak, egitura organikoa eta agintaldiaren iraupena ezarriko ditu.

5. Gobernu Kontseiluak, bere kideen gehiengo absolutuaz, eskumenen betearazpena batzordeengan delegatzeko edo baliogabetzea erabakitzeko aukera izango du, berariaz, eta modu zehatzean, eskumenen delegazioak dituen lege-mugak galarazi gabe.

6. Batzordeen bileren deialdiak egiteko, haien garapenerako eta aktak egiteko, balizko batzorde horien arautegi zehatzek ezartzen dutenari jarraituko zaio, eta arau berezirik ezean Arautegi honetako Hirugarren Tituluak ezartzen dituen arauak aplikatuko dira, zeinak, gainera, ordezkoak izango baitira.

19. artikulua. Batzorde Iraunkorra.

1. Honako hauek osatzen dute Batzorde Iraunkorra: errektoreak, batzordeburua denak, idazkari nagusiak eta Gobernu Kontseiluko hamar kidek, banaketa honen arabera:

a) Unibertsitateko irakaskidegoetako irakasle doktoreen hiru ordez-kari.

b) Unibertsitateko irakaskidegoetako kontratupeko irakasle eta ez doktoreen ordez-kari bat.

c) Dekanoen edo Ikastegiko zuzendarien ordez-kari bat.

d) Saileko Zuzendarien bi ordez-kari.

e) Ikasleen ordez-kari bat.

f) Administrazio eta zerbitzuetako langileen ordez-kari bat.

g) Gizarte Kontseiluaren ordez-kari bat.

2. Gobernu Kontseiluaren Osoko Bilkurak berariaz delegatzen dizkio Batzorde Iraunkorrari eskumen hauen betearazpena:

a) Unibertsitateko irakaskidegoetako ikaspostuetara sartzeko lehia-keta batzordeetako kideak izendatzea.

b) Behar den tokian erakundearen ordez-kari izango direnak izendatzea.

c) Beste unibertsitate edo erakundeekin edota zentro publiko zein pribatuekin egiten diren lankidetzak eta truke-hitzarmenak berrestea eta salatzea, eta kontratuak onestea, hala badagokio.

d) Irakasleen lizentziak baimentzea, arautegi aplikagarriak ezartzen duenaren arabera.

e) Dagokion txostena prestatzea, irakasleek jakintza-arloz aldatzea eskatzen dutenean.

f) Irakasleak, aldi baterako, sailei atxikitzeo eskaerak onestea, bidezkoa bada.

g) Hauteskunde Batzordeko kideak izendatzeko zozketan egotea, baita legokiokkeen beste edozein egitea ere.

20. artikulua. Irakaskuntza Batzordea.

1. Honako hauek osatzen dute Irakaskuntza Batzordea: Irakasleen errektoreordeak, batzordeburua denak, Irakaskuntza errektoreordeak, eta Gobernu Kontseiluko bost kidek, banaketa honen arabera:

a) Unibertsitateko irakaskidegoetako irakasle doktoreen hiru ordezkari.

b) Unibertsitateko irakaskidegoetako kontratupeko irakasleen eta ez doktoreen ordezkari bat.

c) Dekanoen edo Ikastegiko zuzendarien ordezkari bat.

d) Saileko zuzendarien ordezkari bat.

e) Ikasleen ordezkari bat.

2. Irakaskuntza Batzordea irakaskuntzaren antolamenduari eta irakasleekin zerikusirik duten gaien jakinaren gainean egongo da.

3. Irakaskuntza Batzordeak bere kideen artetik hautatuko du idazkaria.

21. artikulua. Ekonomia Batzordea.

1. Honako hauek osatzen dute Ekonomia Batzordea: Plangintza eta Aurreikuspenen errektoreordeak, batzordeburua denak, kudeatzaileak, eta Gobernu Kontseiluko sei kidek, banaketa honen arabera:

a) Unibertsitateko irakaskidegoetako irakasle doktoreen ordezkari bat.

b) Unibertsitateko irakaskidegoetako kontratupeko irakasle eta ez doktoreen ordezkari bat.

c) Dekanoen edo ikastegiko zuzendarien ordezkari bat.

d) Saileko zuzendarien ordezkari bat.

e) Administrazio eta Zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

f) Gizarte Kontseiluaren ordezkari bat.

2. Ekonomia Batzordea Unibertsitateko kudeaketa ekonomiko eta finantzarioarekin zerikusirik duten gaien jakinaren gainean egongo da.

3. Ekonomia Batzordeak bere kideen artetik hautatuko du idazkaria.

LAUGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren erabakien aurkako errekurtsoak

22. artikulua.

Gobernu Kontseiluko Osoko Bilkurak eta Batzordeek, delegatutako eskumenak erabiliz, hartzen dituzten erabakiek administrazio bidea agortzen dute, eta administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan aurkatuko dira, zuzenean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio

Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearekin eta lege aplikagarriekin bat etorritik.

BOSGARREN TITULUA

Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegiaren eraberritzea

23. artikulua.

1. Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegia aldatu edo eraberrituko da, errektorearen ekimenez, edo Kontseiluko kideen ehuneko hogeita hamarraren ekimenez.

2. Arautegia aldatzeko edo eraberritzeko, Gobernu Kontseiluaren kideen gehiengo absolutuak onetsi behar du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Hauteskunde Arautegiko 9.3 artikulua ezarritakoari begira, bakar-bakarrik, errektoreak izendatzen duen errektoreordeari egokituko zaio ohiz kanpoko bileretarako deitzea eta horietako buru izateko ardura, edo, ez badago, antzinatean handiena duen unibertsitateko irakaskidegoetako errektoreordeari, hurrenez hurren.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Arautegi honek indarra hartzen duenean dauden Gobernu Kontseiluko Batzordeek indardun jarraituko dute osaerari dagokionez, haiek aldatzeko erabakiak hartzen ez diren bitartean; hala ere, Batzorde hauei aplikatuko zaizkien eginkizunak eta araubide juridikoa Arautegi honetan ezarritakoak dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Behin-behineko Gobernu Kontseiluaren Barne Eraentzako Arautegia indargabeturik geratzen da (14/2002 E., Behin-behineko Gobernu Kontseiluarena, 2002ko azaroaren 14koa) 2003ko urtarrilaren 1eko 1 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena), baita Behin-behineko Gobernu Kontseiluaren Batzordeak onetsi zituen erabakia ere (8/2002 E., Behin-behineko Gobernu Kontseiluarena, 2002ko urriaren 7koa, 2000ko azaroaren 6ko 134 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zena), baita arau honetan ezarritakoari aurka egiten dioten eta lerrun bereko edo beheragoko beste gainerako arau guztiak ere.

AZKEN XEDAPENA

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman, eta biharamunean hartuko du indarra Arautegi honek.